

<b>6.a</b>	<b>2. EZAGUTZA FITXA</b>	<b>OBJEKTU TEKNIKO BATEN FUNTZIONAMENDUAREN AZTERKETA</b> <i>Jakin behar dudana</i>	
------------	----------------------------------	--	---


<b>EZAGUTZAK :</b>	<b>MAILA :</b>	<b>GAITASUNAK :</b>
Funtzionamendu printzipio orokorra.	2 (« badakit aipatzen »)	- Objektu tekniko baten funtzionamendu printzipio orokorra deskribatu.
	1 (« badakit »)	- Objektu teknikoa osatzen duten elementu nagusiak identifikatu.
Funtzio teknikoa, aterabide teknikoa.	1 (« badakit »)	- Erabilera funtzioa betetzeko behar diren funtzio teknikoak zerrendatu.
	2 (« badakit aipatzen »)	- Funtzio tekniko bat betetzen duten aterabide teknikoak identifikatu.

#### Oinarri bateratua

<b>3</b>	Hainbat eremu zientifikotan ezagutzak eta gaitasunak erabiltzen jakin	Objektu teknikoak : ikertzea, diseinatzea.
----------	---	--

## 1- FUNTZIONAMENDU PRINTZIBIOA

Objektu teknikoa hainbat **funtzionamendu printzipiotan** oinarrituko da bere erabilera funtzioa segurtatzeko. Printzipio horiek objektua ibiltzeko beharrezkoak diren **ekintzen kronologia** (edo ordena) zehazten dute.




*Adibidez :*

- 1- erabiltzaileak pedalen gainean indar egiten du
- 2- pedalak pedalierra ibilarazten du
- 3- pedalierrak platera birarazten du
- 4- platerak katea eramaten du
- 5- katea errotrari lotutako pinoiak engranatzten ditu
- 6- errota biratzen da

## 2- FUNTZIOAK

Maiz objektuaren elementuak azpimultzotan banatzen dira (balaztatze, gidatze,...)


Azpimultzoz bakoitzak funtzio berezi bat beteko du : **funtzio teknikoa**. Objektuaren funtzio tekniko guziek bat eginez erabilera funtzioa betetzea lortuko da.



### 3- ATERABIDE TEKNIKOAK

Funtzio tekniko horiek desberdinki gauzatzen ahalko dira **aterabide tekniko** ezberdinak erabiliz.

Funtzio tekniko batzuk : BALAZTATZE, MUGITZE, GIDATZE, BULTZATZE, ...

	Erabilera funtzioa	Funtzio teknikoak	Aterabide teknikoak
	Bi lagun eraman.	BULTZATZE (mugimendua sortu)	motor termikoa motor elektrikoa
		GIDATZE (gidatu)	gidoina - urkila
		BALAZTATZE (balaztatu)	diskozko balazta danbor-balazta